

OTANEN ERREFERENDUM EKO EMAITZAK

1.986.ko Martxoaren 12an egin erreferendumean Lezon ateratako emaitzak, laburki bederen, aipatuko ditugu hemen eta komentatuko, irakurle-a gehiago nekarazi gabe lehenaz gain. Beti ere interesgarriak dira dato horiek herri baten arnasa eta gogoia neurtzeko.

Lezoko datoekin batera, erreferentzi gisan, Estatukoak, Euskal Herrikoak eta Gipuzkoak jartzen dizkizugu begien aurrean, gure herriaren erantzuna hobeki koka dezazun orokorragoekin alderatuz. Ikus ondorengo taula:

Bozketa eremua	Zentsoa	Abstentzioa	Baiezkoa	Ezezkoa	Zuria	Baliogabea
LEZO	4.041 %100,00	1.307 %32,35	548 %13,56	2.109 %52,19	50 %1,24	34 %0,84
GIPUZKOA	529.893 %100,00	%34,90	%18,50	%44,50	%1,50	%0,60
EUSKAL HERRIA	2.025.417 %100,00	%34,90	%21,50	%40,90	%2,10	%0,60
ESTATUA	28.828.425 %100,00	%40,30	%31,07	%23,52	%3,87	%0,65

Estatu mailan Euskal Herria izan bada txapeldun OTANen aurka-ko jarreran (%40,90) eta Euskal Herria barnean Gipuzkoa (%44,50), berehala o-har gintezke nola areagotzen den ezezkoaren maila Lezoren kasuan (%52,19).